



AGINDUA, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua onartzen duena

Arauk prestatzeko prozedura ezartzen du II. kapituluan Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak; horretarako, 4.1. artikulua bidez agintzen du prozedurek jorratzen duten gaien eskumena daukan Saileko sailburuaren aginduz abiarazi behar direla prozedurok.

Lege horren 7.1. artikuluan esaten denaren arabera, «xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurretik onartu beharko ditu, dagozkion negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egin aurretik».

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko martxoaren 12ko Aginduaren bidez, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea agindu zen.

Aurreproiektuaren testua idatzi ondoren, bidezko entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretiko onarpena egin behar da, aipaturiko hasierako aginduan ezarritako xedearekin bat.

Horregatik guztiagatik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Kiroleko Dopinaren Aurkako Legea aldatzeko Legearen aurreproiektu hau onartzea.

Bigarrena.- Xedapen hori prestatzeko prozeduraren instrukzio-izapideekin aurrera egitea.

**Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**